



Ohitura zaharrei eutsiz, Santa Anako parodia.- Santa Ana egun ederra ospatu zuten herritarrek ostiralean. Parte hartze handia izan zen lasarteoriatarren aldetik eta ohitura zaharrei eusteko nahia eta gogoia badagoela argi utzi zuten, kasu honetan eurria, langabezia eta integrazioa gaitzat izan zituen parodian antzezle lanak eginez. Beste behin ere umorez jantzi zuten Okendo plaza, aurtengo omenduak izan diren ikusleak begira-begira zituztela. Hala ere, parodia gau partean izan bazen ere, Santa Ana eguneko ospakizunak Xabier Andonegi parrokoak Santa Ana eta San Joakinen irudien aurrean emandako mezarekin hasi ziren goizeko 11:00etan Brigidatarren kaperan. Behin meza amaituta, Ttakun kultur elkarteak hamaiketako prestatu zuen Elizatze plazan eta 12:00ak puntu-puntu zirela, Santa Ana karkaba aurrean Erketzeko dantzariak ikurrinaren aurrean dantzan egin zuten. Gauean, ohi bezala, parodia umoretsu, alai eta kritikoa burutu zen Okendo plazan.

3 ERRAUSKETA

Herriko Ehbildu pozik GHKren erabakiarekin

Lasarte-Oriako Ehbildurentzat pozgarria da GHK-k errauste plantaren lanak eteteke erabakia hartu izana. Zubietako plantaren aurka duela zazpi urte herrian "Irtenbideak badaude errausketarik ez" lelopean egin zen manifestazio jendetsua izan zuten gogoan egindako agerraldian.

6 TENIS

Lasarte-Oriako tenis txapelketan Juliák Ramos garaitu zuen

Lasarte-Oriako IV tenis txapelketako finala jokatu zen Kirol gunean, ostiralean. Buruz buru Jordi Juliák donostiarra eta Jon Ramos urnietarra izan ziren. Juliáren esperientziak eta sakeak bere alde egin zuten eta urnietar gazteari 6-2 eta 7-5 irabazi zion.



TXINTXARRI oporretara doa

TXINTXARRI aldizkaria eta txintxarri.info-ko lan taldea abuztuan oporretara doa. Indarrak berriro eta irailaren 9an berriro ere zuten etxeetan izango gaituzue.

Bien bitartean, herriko albisteak Txintxarriko twitter eta facebook kon-tuetan aurkituko dituzue.

Gipuzkoako erakusketarik zabalena 500m²-tan

josta mendi
Ttikia

Easo 51 20006 Donosti • Tel.: 943 470244
Artaleku 3 20300 Irun • Tel.: 943 638223

www.jostamendi.com



Jaio berri eta amek behar duzuen guztia

- Haur kotxeak
- Paseoko aulkiak
- Sehaskak
- Tronak
- Autorako aulkiak
- Bainerak
- Biberoiak
- Osagarriak
-

Talaiatik

Oporretara doa TXINTXARRI!

kasturte luzea izan da 2012-2013a, Euskararen 8. Maratoia izan dugu tartean, zer nolako asteburu urriko hura! Eta gogoz oporrak hartzeko garaia iritsi zaigu. TXINTXARRI egiten dugunontzat atsedeen hartzeko ordua.

Ohi bezala abuztuan ez dugu aldizkaririk argitaratuko eta txintxarri.info weba ere ez da berrituko denbora honetan. Hala ere, sare sozialetan izango gaituzue eta herrian edozer gertatzen dela hauen bitartez zabalduko dugu.

Etenaldi honetan ordea, txintxarri.info ez da guztiz geldirik egongo. Hainbat dira gure weban egin nahi ditugun aldaketa eta hobekuntzak eta noski eguneroko martxan oso zaila da hauek gauzatea. Batez ere barruko aldaketak izango dira, irakurleek ez duzue diseinu aldaketa nabarmenik ikusiko, baina hauei esker TXINTXARRI oraindik zerbitzu hobea eskaintzeko moduan izango da.

Bide batez eskertu behar dizuegu hilabete hauetan egin duzuen atariaren jarraipena eta ahaleginak merezi izan duela ikusteak asko pozten gaitu, izan ere, TXINTXARRIEN baliabideak xumeak dira eta Maratoian, Gabonetan, Inauterietan edota San Pedro jailetan egindako lana handia izan da zuei argazki eta bideo guztiak eskaintzeko.

Bestalde, herriko egunerokotasan, abuztuan ere izango da aldaketa aipagarri bat, udalaxe berriaren atek zabalduko dira eta udaleko langileak bertan hasiko dira lanean. Bi urte pasa dira udalaxea itxuraz bukatuta Okendo plazan ikusten dugunetik eta orain bai, hainbeste zalaparta sortu dituen eraikina herritarren zerbitzura jarriko da.

Beraz opor garai honetan herria ez da guztiz geldituko eta irailaren izango duguzue zertaz mintzatu eta eztabaidatu. Oporretan ez zaudetenoi animo, eta gainontzekoei ondo pasa oporrak eta irailaren izango gaituzue berriro zuen etxeetan. Bueltan TXINTXARRI irailaren 9an kaleratuko dugu baina sarean irailaren 2an izango gaituzue udako oporretan gertatutakoak erreparatzen. Ondo pasa!

Zorion agurrak



Larraitz

Hankaz gora jarriko da errepublika zure urteak ospatzeko! Zorionak jalguneko laguneren partetik.



Maddi eta Unax

Zorionak!! Egun ona pasa !! muxu eta 8 hozkada familia guztiaren partez!



Maria

Zorionak guraso, Mikel eta Noraren partetik.



Nicole eta Angie

Zorionak amona eta gurasoen partetik.



David

Zorionak!!! Ondo pasa zure 9. urtebetetzean! Muxu handi bat, aitona eta amonaren partetik.



Enara

Zorionak prexioxa!!! Ondo pasa zenuen zure urtebetetze egunean! 8 muxu potolo familia guztiaren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garajea alokatzen da erdigunean: itxia bi autoerentzat. Harremanetarako, 686 674 552
- Landetan Leonen 6 plazako mobilhome bat alokatzen da oso prezio onean. Harremanetarako, 660 057 667.
- Garajea alokatzen da Atsobakarren, Garai-koetxea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. Harremanetarako zenbakia: 943 36 54 76 / 659 021 945

Salerosketak

- Kotxea salgai. Mercedes Vito 4000 eurotan. (Ohea du) Harremanetarako, 630 032 779.

Lan-eskaintza

- Lasarteko denda baterako autonomia eskatzen da. Eguneroko lana. Arduratsua eta emakume heldua bada hobe. Interesatuak bidali kurrikuluma apdo 56 Donosti.

Lan-eskariak

- Etxeko lanak egiteko, edadeko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanetan aritzeko pertsona bat eskaintzen da. Harremanetarako telefonoa, 620 019 449.

Hitz eta pitz

Zer egingo duzu oporretan?



Arantza Fernández

Aurten ez noa inora. Kanpotar asko etortzen dira hona oporretara, ba ni bertan nago. Hemen ere ederki pasa daiteke. Ez naiz hondartza zalea, baina badaude nahi beste, atera eta toki askotara joan zaitezke, egunero herri batera... Bajarekin nago eta hemen ibiliko naiz. Krisi garaia da, asko geratuko dira hemen, ez dago eta dirurik. Ez dakit, baina uste dut asko ezingo direla kanpora joan.



Jon Urretabizkaia

Hiru asteko oporraldia izaten dugu abuztu inguruan. Azken hiruzpalau urtetan ondo aprobetxatu ditut, bizpahiru aste atera naiz kanpora. Aurten, ordea, ez daukat plan handirik: furgonetan koltxoneta bat bota eta joango gara, agian Granadara edo Bizkaira, berdina, baina asteren batean bai. Gehiegi gastatu gabe, lagunak gero neguan kanpora joateko asmoa dauka eta.



Ines Casares

Oporretan gauza berezi gutxi egiten dut, bilobekin egongo naiz. Alargundu eta bakarrik nagoenetik ez daukat oporretarako gogorik, ez nabil oso alai, ez daukat ateratzeko grianarik. Hemen ibiliko gara. Semeak dio hau dela bere herria, eta niri ere asko gustatzen zait, oso ondo gaude hemen, jada urte asko dira etorri nintzenetik. Lehen joan ginen senarraren eta nire jaioterria. Orain jada ez.



Manuel Gómez

Aurten ez daukagu opor girorik, planik ere ez, diru gutxi daukagu eta. Ez goaz kanpora. Egoera ekonomikoak eragin handia dauka oporraldiak erabakitzerakoan. Hemen geratuko gara, baserrira joango naiz. Mendia hondartza baino gehiago gustatzen zait. Lehen joaten ginen Lugora, jaioterria, baina gurasoak falta ditudanetik ez. Jada 40 urte daramatzat hemen.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I., Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

HONDAKINAK

EhBildu pozik errauste planta gelditzeko erabakiarekin

Birziklatzearen aldeko konpromisoa berretsi zuten agerraldian

**Lasarte-Oriako EhBildu-
rentzat pozgarria da GHK-
k hartutako lanak eteteko
erabakia. Zubietako
errauste plantaren aurka
duela zazpi urte herrian
"Irtenbideak badaude errausketarik ez" lelopean
egin zen manifestazio jendetsua izan zuten gogoan.
Horretaz gain, erraustea-
ren aurka eta birziklatze-
aren aldeko konpromisoa
azaldu nahi izan zuten.**

Maidar AZURMENDI

Lasarte-Oriako EhBildu agerraldia egin zuen asteartean Zubietako errauste plantaren lanak etetearen erabakiaren inguruan. Gogoratu zuten duela hamar-kada bat hasi zela hondakin arazoari errauskailuaren bidez irtenbidea emateko saiakera "okerra". Herri askok uko egin da Lasarte-Oria inguruko Zubietako lurretan kokatzea erabaki zuten "guretik kilometro eskasera horrek suposatzen duen guztiarekin" azaldu zuen Txanpi Baztarrikak.

Garai hartan herriak uko egin zion Zubietako errauskailuari eta sistema hau osasunarentzako kaltegarritzat jo zuela azpimarratu nahi izan dute. "Zazpi urte pasa dira

errauskailuaren aurka 8.000 lagun bildu zituen manifestazio erraldoia egin eta milaka sinadura bildu zirenetik, "Irtenbideak badaude errausketarik ez" lelopean.

Azken asteetan "errauskailuaren obrak geratu egin dira eta horrenbeste urtetan gure eskakizunetako bat izan dena momentuz bete egin da". EhBildurentzat "pozgarria da orain dugun egoera".

Erabilera politikoa

Hondakinaren gaia korapilatsuagoa dela azaldu zuten, "azken urte hauetan ikusi bezala, hondakinak murriztu behar dira eta batez ere bereiztea beharrezkoa da". Arazoaren irtenbidea EhBildurentzat "birziklapena da, ahal den gehien; eta horretarako biltzeta sistema egokia zehaztea ezinbestekoa da".

Udalean, PSEk eta EAJK udal gobernuari hondakin kudeaketarako eskumena "kendu eta "5. edukiontzia batzordea" sortu zuten duela zazpi hilabete bere lehendakaria PSE-EEko Jesus Zaballos izendatu zutelarik".

Urte erdia pasa da eta Baztarrikaren esanetan, "egina dagoen bakarra batzordearen araudia da eta horretan ere gure emendakin guztiak atzera bota ziren" besteak beste, batzordearen izena aldatu eta hondakin

biltzetarako batzordea izendatzea eskatu zuen alderdiak baita herriko talde eta herritarrei parte-hartzea zabaltea.

Beste ezer ez dela egin salatu dute "hilabeteak daromatxatu informazioa jasotzen ari direnaren aitzakiarekin, baina bitartean ez da mugimendurik egon. Gipuzkoa aztoratuta dago biltzeta sistema direla eta, beste konturik ez dago egunkarrietan, eta batzordea ez da informazioa biltzeko gai". Bi ondorio ataratzeko alderdiak "ez dute inolako fundamenturik lan hau egiteko, eta benetan kezagarria litzateke, eta ez dute interesik birziklatzeko".

Hauen ustetan bigarrena da arrazoi nagusia eta biltzeta sistemaren inguruan sortu duten liskarra "interes partidista hutsetatik" etorri da. "EhBilduren aurkako kanpaina egiten ari dira, hondakinez ahaztu eta beraien errauste makinari jaten emateko".

EhBilduk "alderdi batzuen interes eta inobilismoaren aurrean", herrian gehiago birziklatu behar denaren konpromiso eta konbikzioari eusten diola azaldu zuen, eta honen alde lan egiten jarraituko duela, "arreta biltzeta sistemaren baimo helburuetan jarri. Duela zazpi urte esan genuen moduan, gaurkoan ere errausketarik ez, ez hemen ez inon. Irtenbidea, birziklapena".



SUBERRI

Harrera ona Mostolesen

SuBerri akordeo orkestra lehenengoz Gipuzkoatik atera da. Elias Goikouriak zuzentzen duen orkestra Mostoleseko Udaleko Hezkuntza, Kultura eta Turismo-sustapen sailak gonbidatu zuen kontzertua eskaintzera.

600 pertsona bildu ziren Estanqueko anfiteatroan Lasarte-Oriako taldearen emanaldia entzutea. Gainera, orkestrako kideek azaldu digutenez, lehen aldian zen, horrelako orkestra batek Mostolesen parte hartzen zuena. Kontzertuan musika mota ezberdinak nahastu ziren, pasodoblea, jazz-a, musika amerikarra, bossa nova... Amaieran, txalo zaparrada handiarekin beste doinu bat jotzeko eskatu zuten eta SuBerri orkestrak ezusteko bat zuen prestatua, madrildar txapela jantzita "Madrid" txotisa eskaini zuten.

Hurrengo emanaldia Donostiako 1813ko sutearen berrehungarren urteurreneko ekitaldien barruan izango da uztailaren 30ean, Donostiako San Vicente elizan.

BIYAK BAT

Kiroldegia bi astez itxia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, 2013 urteko egutegiaren arabera abuztuaren 1a eta 14a bitartean geldialdi teknikoa egin behar duela.

Zerbitzuak instalazioetan mantenimendu eta garbiketa lanak egin behar ditu eta ondorioz, herriko kirol instalakuntzak itxita egongo dira bi astez abuztuan.

Egun horietan Kirol Instalazioko erabiltzaileek Urnietako kiroldegia erabiltzeko aukera izango dute.

IKASTAROA

Jantziak pertsonalizatzeko tailerra

Udalak gaztetxoentzat antolatu dituen kaleko ikastaroen saioa burutu zen larunbatean Isla plazan. Kasu honetan jantziak pertsonalizatzeko aukera izan zuten 8 eta 14 urte arteko gaztetxoek. Etxetik eramandako kamixeta zuri zaharrak Isla plazako postura eraman eta bertako begiralearen laguntzaz koloreztatu egin zituzten. Besteak beste, ilargiak, otsoak, palmarrak, aterkiak, tximinoak, eguzkiak etab. marraztu zituzten kartoiak koloretazko tenperekin.

Larunbat eguerdi partean plazara hurbilduta, gaztetxo batzuk ikus zitezkeen euren jantziak mimoz prestatzen. Kamixeta pertsonalizatzeko aukera ere izan zuten euren izena txukun txukun ertz batean jarrita. Behin tailerra bukatuta eta tenpera koloreak lehortzen utzita, etxera eraman zituzten senideei euren artelanak erakutsi eta gauzak zakarretara bota aurretik bestelako erabilpen dibertigarri bat eman diezaioketela ikasita.



Astearteko agerraldian duela zazpi urteko manifestazioa gogoratu zuten.



Meza ostein hamaiketako eskaini zuen Ttakun elkarteak Elizatze plazan, eta 12:00etan puntuan Erketz-eko kideek aurrekoa dantzatu zuten Santa Ana karkaban.



Aurtengoan parodiako ikusleak omendu nahi izan dituzte, itxura hau zuten Okendo plazak.



Langabetuen plataformako ere oholtzara igo ziren euren aldarrikapenak egitera.

Publikoari esker onez

Santa Ana parodiak urtero urtero plaza betetzen duten ikusleak omendu nahi izan ditu



Beste urte batez Santa Ana egun polita izan zen ostiralekoa. Ohiko ekintzetan herritarren parte hartze handia izan zen eta parodiak beste behin ere, umorez jantzi zuen Okendo plaza. Aurtengo omenduak ikusleak izan dira eta eurentzat izan ziren oholztatik botatako esker oneko hitzak.

Santa Ana eguneko ospakizunak Xabier Andonegi parrokoak Santa Ana eta San Joakinen irudien aurrean emandako mezarekin hasi ziren goizeko 11:00etan Brigadatarren kaperan. Erketz-eko kideek aurrekoa dantzatu zuten elizan bertan.

Meza osterako, hamaiketako prestatu zuten Ttakun kultur elkarteak Elizatze plazan.

Gero, Erketz dantza taldekoek berriro dantzatu zuten, urtero bezala 12:00etan.

Elizako kanpai-hotsekin batera hasi zen txistularia agurraren doinuua jotzen eta berarekin batera Erketz-eko dantziari Santa Ana karkaban jarritako ikurrinaren aurrean.

Gero eta herritar gehiago biltzen da Santa Ana eguneko

dantza ikustera eta irrintziren bat edo beste bota zuten batek. Bukatzeko, trikitilarien laguntza fandango eta arin arina dantzatuaz eman zioten amaiera goizeko egitarauari.

Afaria, kalejira eta parodia
Arratsaldean parodia giroa izan zen nagusi. Egun batez aktore bihurtutako herritarrak goiz elkartu ziren azken entsegu egiteko.

Ttakuneko bulegora igo eta bertan jantzi ziren asko. Denak dotore-dotore jantzi ostein eta urteroko ohiturari eutsiz familia argazkia atera zuten. Suhiltzaileen kamioia hartu eta Oriara abiatu ziren.

Indarrak hartzeko Buruntz-Azpi elkarteak prestatutako afari goxoa dastatzeko aukera izan zuten. Kalejira aurtengo-

an Oriatik hasi zuten bizikletak hartuta eta Okendora ibilbidea egin zuten aktore guztiak. Zorionez ez zen istripurik izan.

Okendo puntual ekin zaio epaiketari. Mari Karmen Ormazabalak aurkezle lanak egin ditu.

Parodia egiten duten guztiak eskerrak eman dizkie eta lehenengo ezustekoa eman du, omenduaren izena. Ormazabalak jakitera eman duenez, parodiak aurtengo ikusleak omentzea erabaki du izan ere "eurak gabe ez litzaizte parodiari izango".

Jarraian, Lierni Rekondok ikusleei eskainitako bertsoak bota ditu.

Ez hango ez hemengo

Aurten Tximistine Txaparrondegi eta Maria Akaparadora Barrepakasa izan dira akusatutakoak. Fiskalak bere lana egin eta lekukoak deitu zituen.

Era hoentara, eurria eta Parte hartzea izan ziren aurtengo parodiaren gai nagusiak. Eguraldiak askorako eman zuten; "euria salbatuko gaitu

krisitik, Euri-Polis, Lasarte-Oria, Eurieren hiria!" gune turistikoak lana eman eta herritarren depresioarekin eta tristurarekin amaitu ahal izango dela aurreratu zuten.

Hango eta hemengo bertsoak ere lekua izan zuten oholztan Tio Joxeren eskutik "ez hango eta ez hemengo". Andaluziatik jendea lanera etortzen zela ikusita erroka handiko gizona izaki, kontrako bidea egin zuten herritarrak "Lana don tokin lana ittea errega dek. Hik grandes retos behar dituk" Andaluzian nola integratu zen kontaktu zuten, herria faltan botatzen eta batez ere Oriako ur gardenak.

Eliza txollo bat!

Tio Joxerren ondoren, apaiza eta monagiloa izan ziren oholztan.

Apaizak langabezia duden herritarrei lana eskaini zien "eliaz hartuko ditu bere magalean nagusiak lantegitik bidalikoak, estatuak INEM edo LANBIDETIK bidalikoak, Bankuek beraien etxeetatik bidalikoak, Unibertsitate

ordaindu ezinik daudenak, edo sartzeko nahiko notarik atera ez dutenak. Denak. Denak gara jainkoaren seme-alabak. Etorri elizara. Guk etxe asko dauzkagu. Lana ere eskainiko diezugu, Unibertsitateak ere baditugu. Sarrera notarik gabeak. Apaiz edo moja egiten bazarete ikasketak dohain. Eliza txollo bat da!". Bide batez apaizak salatu zuten IBI zerga ordaindu beharria ogasunaren aginduz eta Gizpuzkoako Aldundiarentzat hitz gogorak izan zituen.

Benetako parte hartzea

Jarraian udaleko bi garbitzaileen ahotan parte hartze departamenduari hainbat kritika erori zitzaizkien, "izen elegante bat jarri, erakargarria eta ZAS! denak poltsikoan eta bitartean beraien nahi dutena egiten dute. Rajoi jaunak futbolarekin egiten duena egin digute hauen guri Parte Hartzearekin".

Udaltzainen jantzi berriaren inguruan galdeketa mar-txan jarri ez izana leporatu zioten udalari eta ikusle

laguntzarekin bi "herri galdeketa" burutu zituzten. Batetik, "aintzina bezala Lasarte Oriako zentroan berriz ere Santa Anako Jaiak ospatzen hasia, bere kontzertu, txosna, meza eta soka muturrarekin. Alde zaudetenak erakutsi papeleta berdea, bestela gorria".

Bestetik, udaltzainen neguko uniformearentzat bi proposamen egin zituzten "inork galdetu ez digunez, guk herriko diseinatzaile eta jostunekin hitz egin dugu eta hemen dauzkagu Udaltzaintzat neguko uniformerako bi proposamen. "Jeyperman Delux" eta "Pasific blue" modeloak.

Alkatearen San Pedroetako diskurtso ulertzeko modukoa egitea edo Michelin II-an Mercedona, Ikea, Primark edo bulegoak jartzea ere galdetu dute.

Giro ederrean ospatu zen urteroko parodia. Nahiz eta euria egin, ikusleak haien eserlekuetan mantendu dira eta nola ez, akusatutako erret dituzte Basajaunaren aginduz.



Apaizaren sermoia eta monagiloaren inentsua, Jainkoak bedekinatuta.



Hango eta hemengo, hemengo eta hango Andaluziako Tio Joxeren eskutik.



Ttakunen jantzi eta bakoitza bere pertsonaien sartuta.



MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Prezio berriak fotodetilazioan ETORRI eta GALDETU

Ustin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

TTAKUN-ek KUDEATZAILEA BEHAR DU

Kudeaketaz, plangintzaz, antolakuntzaz eta enpresaren jardunaren kontrolaz arduratzeko. Baliabideak optimizatuz, plan estrategikoa garatuz ...

Ezinbestekoa izango da:

- Euskara eta Gaztelera menperatzea.
- Erdi edo Goi Mailako ikasketak izatea

Baloratuko da:

- Euskalgintza eta Herrigintza arloak ezagutzea.
- Antolakuntza, komunikazioa, lantaldeen koordinazioarekin eta giza harremanetarako gaitasuna.
- Egitasmo berriak sortu edo proposatzeko gaitasuna.
- Beste hizkuntzen ezagutza ingelesean, frantsesean.
- Ekonomia ezagutzea.

Eskaintzen da: 2 urteko kontratua, sei hilabeteko frogarekin, gero finko gertatzeko aukerarekin.

Curriculuma bidaltzeko erreferentzia: Ttakun.
Helbideak: ttakun@ttakun.com // Geltoki Kalea 4, 20160 Lasarte-Oria

TENISA.-

Jordi Juliá Lasarte-Oriako tenis txapelketako garaile

Finalean Jon Ramos garaitu zuen. Kontsolazio finalean, Eugenio Moreno izan zen irabazlea

Lasarte-Oriako IV. Tenis txapelketako finala jokatu zen ostiralean. Tenis zaletu ugari hurbildu ziren Kirol guneko pistara. Jordi Juliá faboritoak Jon Ramos gaztea garaitu zuen, 6-2 eta 7-5. Asteazkenean, berriz, kontsolazio finala izan zen. Txapelketa honetako irabazlea Eugenio Morales izan zen irabazlea.

NEREA EIZAGIRRE

Santa Ana eguneko ospakizunez gain, ostiralean Lasarte-Oriako Kirol gunean era jaialdi handia izan zen, tenisaren jaialdia.

Giro ederrean, Lasarte-Oriako IV. Tenis txapelketako finala jokatu zen.

Jordi Juliá donostiarrak eta Jon Ramos urnietarra izan ziren aurrez aurre Kirol guneko pistan. Juliá zen faboritoa eta ez zuen huts egin, 6-2 eta 7-5 gailendu zuen.

Finala

Jordi Juliáren sarea eta esperientzia erabakiorrak izan ziren lehen set-ean. Hori esker, 6-2 irabazi zion 16 urteko urnietarrari.

Bigarren set-a, berriz, berdindua izan zen.

Jon Ramosek lehen joko irabazi zuen. Baina Jordi Juliá lau joko jarraian irabazi zituen ostean.

Jonek bosnako berdinketa lortu zuen. Tamalez Jonek

akatsak egin zituen bere sakean eta Juliá sakean 7 eta 5koa lortu zuen.

Kontsolazio finala

Asteazkenean, berriz, kontsolazio finala edo ATG-Quick txapelketako finala jokatu zen.

Antolatzaileek azaldu digutenez, txapelketa honetan bere lehen partida galdu duten jokalariek parte hartzen dute.

Honela 18 jokalarik izan dira fase hau jokatu dutenak. Horien artean, Alex Zubizarreta eta Aitor Reyes herritarrak.

Baina hauek ez ziren asteazkeneko finalera iritsi. Bertan, Eugenio Moreno donostiarrak eta Jose Mari Martínez eibartarrak izan ziren aurrez aurre.

Lehen set-ean Eugenio Morenok 6-3 eta bigarrena berriz, emaitza berdinarekin Jose Mari Martínezek irabazi zuen 3-6.

Honela, azken set-ean jokatu zen kontsolazio txapel-



Juliá eta Ramosek partida ona jokatu zuten. Ramosek ederki erantzun zizkien Juliáren sakeei.

ketako saria eta Eugenio Morenok bere nagusitasuna erakutsi zuen, 6-0 irabazi baitzuen.

Saribanaketa eta opariak

Bi txapelketen saribanaketa ostiralean bertan izan zen.

Taxio Arrizabalaga Kirol saileko buruak eta Alex Zubizarreta txapelketako ardura-dunak banatu dituzte sariak.

Saribanaketaren ostean, opariak zozketatu zituzten txapelketako partehartzaile eta ikusleen artean.

Honetaz gain, ATG zirkuituko afaria ere izan zuten ostiralean.



Juliá irabazlea Taxio Arrizabalaga kirol zinegotziarekin.

IGERIKETA.-

Ibarburuk Euskadiko errekorra

Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu eta Naiara Lizaso infantil mailako Espainiako txapelketan izan dira Pontevedran eta maila ederrean lehiatu dira.

Iñigo Ibarburuk lau probatan parte hartu eta lan ederra egin zuen 100 m. tximeleta proban.

100 m. tximeletako finalaurrekoan bere marka hobetu eta finalerako txartela lortu zuen.

Finalean laugarren postua egin zuen herritarrek, 58sg 14 eta 1994tik indarrean zegoen Euskal Herriko errekorra hautsi zuen.

50 m. eta 100 m. libre proban igerileku luzean zituen markak hautsi zituen.

200 m. libreetan aurreko egunetako nekea nabaritu zuen eta ezin zuen bere marka hobetu.



Ibarburuk eta Lizasok lan ederra egin dute Espainiako infantil txapelketan.

Lizasok, berriz, 50 m. eta 100 m. libre probak egin zituen. Lehenengo proban bere marka hobetu zuen eta 100 m. libreetan, berdindu zuen.

Getaria-Zarautz

Bestalde, hainbat lasarteoria-

tarrek Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian parte hartu zuten.

Juan Vicente Martín izan zen herritarren artean azkarrena, 43:58 eta laugarren izan zen master mailako sailkapenean.

LABURRAK.-

Mikel Martija Eibar K.E.-n

Mikel Martija Ostadarreko Ohorezko mailako Erregional taldeko entrenatzaile izandakoa, Eibar K.E.-n ariko da harrobiko koordinatzaile modura lanean. Futbol denboraldia amaitzearekin batera Ostadarreko taldea uzten zuela jakitera eman zuen herritar gazteak.

Eibar taldeak lehenengo astelehenetan jakin arazi zuenez, Mikelek Erik Bretos-en tokia hartuko du, hauxe Real Sociedadeko Oinarrizko Futboleko Organigraman sartuko baita.

Raul Gomez hirugarren Eguzkiaren aurka

Uztailaren 20an, La Caixa-Eguzkiaren aurka lasterketa izan zen Donostian. Bi ibilbide izan zituen bata 5km eta bestea 10km eta lasarteoriatar izan ziren bietan lehiatu.

10 kilometrotako proban, Raul Gomez Margallo izan zen helmugara iristen hirugarrena. Baina ez zen sailkapeneko lehen postuetan sartu zuen herritar bakarra izan, Juan Luis Delgado bosgarren izan zen eta Raul Tejado zortzigarren.

Proba motzean, berriz, Daniel Ferrero izan zen herritarren artean lehena.

Astigarragako kros herrikoian ere herritarra izan genuen emakumeen podiumean, Nieves Civicos hirugarren izan baitzen.

Honetaz gain, uztailaren 21ean, beroari aurre eginez Zumaia Flysh-Trail proban izan ziren hainbat herritar. 31 km-tako proban Iñaki Letamendi izan zen lehen lasarteoriatarra eta 16 km-takoan, berriz, Ibon Urdanpilleta.

Agenda

Abuztua osoa, Jalgi kafe-antzokia



Gizakia eta natura

Shandra Perez Lucero herritarren "Nire azken lana" margo erakusketaz gozatze-ko aukera. Olio margoz mihise gainean egindako lan berria aurkezten du lasarte-oriarrak erakusketa honetan. Giza irudiak, landareak eta mugimendua ikusi daitezke koadroetan. Laranja eta urdin koloreak dira nagusi eta batzuetan collage teknika erabiltzen du oihalak edo loreak lanean txartatuz. Lanak salgai daude.

Usurbil

San Esteban jaiak

Abuztua 1-Abuztua 4

Urdaiaga auzoko herritarrek San Esteban jaiak ospatuko dituzte.

Atxegaldeko festak

Abuztua 30-iraila 1

Atxegaldego auzo elkarteak bizilagunen gozameneko primerako festak antolatuko ditu.

Astigarraga

Argazki lehiaketa

Irailaren 15era arte

"Astiko" Astigarragako Merkatarien elkarteak uda osoan zehar "Astigarragako txokoak" argazki lehiaketa antolatuko du. Oinarriak edo informazio gehiago www.facebook.com/astikoastigarraga orrialdean aurkituko duzue.

Zubieta

Santio jaiak

Zubiaetarrek Santio jaiak amaiera emango diete aste honetan.

Astelehena 29

10:00etan, Jolasen hasiera.

13:30ean, Umeen bazkaria: bakoitzak berea eraman dezala, eta antolatzaileek postrea eta sorpresa jarriko dute.

16:00ean, Jolasen jarraipena.

Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.

19:30ean, Ur jokoak.

Astearte 30: Gaupasa Eguna

00:00etan, Kontzertuak: Berri Txarrak eta Betagarri.

Ondoren, Fan&Go taldearekin goizalderarte dantzatzeko aukera.

Asteazkena 31: San Inazio Eguna

9:00etan, Zikiro prestaketaren hasiera.

9:30ean, Meza.

11:30ean, Errebote partidua.

14:00etan, Zikiro jana.

18:00etan, "Ikusgarri" motozerra erakustaldia.

Ondoren, pintxo pote txosnan.

22:00etan, Olinpiaden amaiera.

00:00etan, Jaiak amaiera, traka, suzuri eta suzko zezenarekin!

San Roke jaiak

Abuztuak 15 eta abuztuak 16

Santiagomendi auzoko herritarrek San Roke jaiak ospatuko dituzte.

Ergobiako jaiak

Abuztuak 25 eta abuztuak 26

Ergobiako auzotarrek auzoko jaiak antolatuko dituzte.

Herritarren txokoa

Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, gaur odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan uztailaren 29an, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitezte, odola ordrezkaezina da eta odol falta dago!

Galdutako arropa

Sorgin Dantzako entsegutan Landaberri BHI-n jendeak ahaztutako hainbat arropa jaso da. Guztia Ttakuneko bulegoan dago beraz galdu dutenek harrera orduan pasa daitezke hauek jasotzera.

Kiroldegiko eta bulegoko Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakin arazten du, uztailaren 1etik aurrera udako ordutegia izango dela indarrean bere kirol-instalazio eta bulegoan.

Kiroldegia astelehenero ostiralera 7:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxia egongo da.

Kirol Gunea, berriz, astelehenero ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara irekiko ditu atekak, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta igandetan itxia dago.

Bulegoko ordutegia ere aldatu da. Astelehenero ostiralera, goizez, 9:00etatik 12:30era bakarrik egongo

da irekia. Asteburuetan itxia egongo da.

Islada Ezkutatuak taldeak testigantzak behar ditu

Islada Ezkutatuak taldea Lasarte-Oriako oroimenaren alde lan egiten ari da.

Taldeak gerra zibila bizi zuten senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezten. Asmoa kasuak ezagutu eta zerrenda bat osatzea da. Lasarte-Oriako denboraldi bat bitzikako edo eskualdean bizitako pertsonen testigantzak ere jasoko dituzte.

Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute.

Uztaro Kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Oriako martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsua bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira baratza eta frutak, garaian garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atekak zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidetan.

Hemeroteka

Duela 1072 ale

1980 eta 1990 hamarkadetan, Lasarte-Oriako folklore jaialdia antolatzen zuen Erketz EDT-k.

Egun batez gure herriko kaleak kolorez eta musikaz betetzen ziren eta herrialde urrun eta ezezagunetako kultura eta dantzak ezagutzeko aukera ematen zuten. Filipina, Txina, Peru, Laponia... nazioarteko hainbat talde etorri ziren Lasarte-Oriara.

1995eko uztailako azken zerbakian, jaialdi honi buruzko informazioa eskaintzen genuen "Kontxo-Kontxo!" atalean.

Atalean gogorarazten denez, Nazioarteko folklore jaialdia

1981. urtean antolatu zuen lehengoz Erketz Euskal Dantza taldeak.

Hau aurrera eramateko, Lasarte-Oriako Udala, Foru Aldundia eta Portugaldeko "Elai Alai" taldearen laguntza zuen herriko taldea. Batez ere, Portugaldeko folklore jaialdiarekin zegoen loturari esker, nazioarteko talde ugari etorri ziren.

Atalean gogoratzen den legez, jaialdia hainbat lekutan ospatu zen, Michelingo kiroldegian edo azken urteetan Manuel Lekuona kultur-etxean. Aurretik herriko kaleetan barrena desfilea egiten zen eta taldeek haien dantza eta kantuak herriarrek gonbidatzen zituzten emanaldira.

1995eko uztailaren XV. edizioan, Benineko "Kini-Kini" taldea, Errusiako "Mainbawa" eta Txinako "Xi'an Ballet Folklorikoa" izan ziren Manuel Lekuonan.

Lurralde haueko dantzak, jantziak eta ohiturak ikusteko aukera bikaina izan zuten kultur etxera hurbildu ziren herritarrek.

Nazioarteko folklore jaialdia, Santa Ana azoka eta Santa Ana parodia abuztua eta oporrak gertu zirelaren seinale ziren. Gaurko zerbakian ere horrela da. Santa Ana eguneko berriei irailera arte agur esaten baitugu.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Goian Esnaola pilota txikitzen eta behean Munduate defentsan, galtzaileak ere fin.



Erketzen agurra, publikoa eta Jon Begiristain finaleko jokalarari onenaren sariarekin.



Mikel eta Jon Begiristain txapela buruan dutela, lehenengoz irabazi dute Santa Anako txapelketa pala motzean espezialista diren anaiek.

Begiristaindarrak txapeldun

Amaitu da XXXII. Santa Anako pala txapelketa

Jon eta Mikel Begiristain anaiek irabazi dute aurtengo Santa Ana txapelketa, finalean Xabi Arteaga eta Beñat Esnaola 30-23 garaitu ostean. Emozio handiko partidua izan da, borrokatua eta fisikoa oso harik eta partiduaren azken herenean Esnaola eta Arteagak pixka bat behera egin duten arte. Kontsolaziozko partidua berriz, Shanti Martin eta Bernaitz Odriozolak irabazi dute arerio gisa zeuzkaten Axier Munduate eta Xenki Astiazaran 30-28ko emaitzaz menderatuta. Itxura ederra zuen Loidi Barrengo pilotalekuak, guztira 150 ikusle baino gehiago hurbildu ziren finalak ikustera, batez ere gazte jendea.

Ez zuen emozio faltarik izan kontsolazioko finalak, hasiera-hasieratik Martin eta Odriozola gorriak joan ziren aurretik (13-6 / 15-8), baina pala partiduak luzeak izaten dira, buelta asko ematen dituzte eta azken ahalegin batean Astiazaran eta Munduate urdinek partidua 27-27 jarri zuten. Azkenean, eta 51 minutuz borroka egin ostean, Martin eta Odriozolak azken ahalegina eginganda hirugarren postua lortu zuten 30-28ko emaitzarekin.

Arantzaxoa kentzeko aukera izan zuten igandean Astiazaran eta Munduatek Villabonan, bertako herriko txapelketako finalera ailegatu, baina 30-19 galdu eta azpitxapeldun geratu ziren.

Final handia eta luzea

Ohore guztiakin hasi zuten finala. Erketz dantza taldekoek agurra dantzatu zieten partiduan ekin aurretik eta epaile lanetan berriz, Jon Pagola eta Josu Sarasola. Bi bikoteei partiduan sartzea kostatu egin zitzaizkien, behartu gabeko akatsak markatu zuten tanteoa lehen herenean eta Esnaola eta Arteaga zabaletarrek 10-8 aurreratzea lortu zuten. Horik aurrera partiduak errotua hartu zuten, tanto luzeak ikusi ziren Loidi Barrengo frontoian eta 11-11 zihozazela, jendeak tantoa bukatu aurretik kirolarrien lana saritu nahi izan zuten, batez ere Begiristaindarraren defentsa gaitasuna. Xabi Arteagak ere klasea soberan duela erakutsi eta txapela

kentzeko moduko bi-paretak egin zituen.

Partiduaren ekuatorean jarri ziren lehenengoz aurretik anaiek (15-14) eta hortik aurrera Mikelek atzean sendo eta Jonnek aurrean erabakior lan polita egin zuten 25-23 jarri arte. Azken bost tantoak erreskadatu egin zituzten Begiristaindarrak eta Xabi Etxezarretak izan zuten anaiei txapela jartzeko ardura. Gaintzeko finalistek trofeoak jaso zituzten antolakuntza eta Aldaz Hartz Klinikaren eskutik.

Antolakuntza kexu

Egunari amaiera emateko Intzan arkume errean jan zuten Santa Anako pala Txapelketan lehiatu diren guztiak. Hala ere, Jon Pagola antolatzailerak batek udalaren babes ekonomiko falta salatu eta txapelketa aurten "txirripaz" egin dela adierazteaz gain, hurrengo urteko edizioa "kolokan" dagoela esan du.

Gazte jendeari deialdi bat egin nahi izan diote antolatzailerak: "Aurten herriko 10 bikote bakarrik aritu dira lehian eta hurrengo urtean egingo bada, seguraski kanpoko jendeari irekia izango da".

